

Plas! Plas!

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Balkoira txalotzera atera nintzen lehenengo arratsaldean hunkitu egin nintzen. Zirraragarria zen: denak mundutik erretiratuta, bakoitza bere kobazuloan babestua, une hartantxe, zortzietan puntuan bat egin arte. Pare pare, bizilagunak (zentzua indartu edo berreskuratu duen hitza, “bizilaguna”). Aitortuko dizuet batzuk ez nekiela hor bizi zirenik ere eta bertzeak orain ezagutu ditudala, distantziara, etxeko arroparekin. Lehenbiziko gortina mugimendu lotsatiak, eskuekin egindako agurrak, trukaturako edo saihestutako begiradak, txalo indartsuak, txalo xaloak,

txalo nekatuak. Egun guztiak direlako ezberdinak, eta egun bakoitzeko txaloak ere bai.

Arratsaldero aterata, ohitu egin naiz. Jada ez da malkorik arrimatzen, baina gus-tatzen zait momentua. Kalearekin dudane- guneko hitzordu bakarra.

Plas! Plas! Nola aldatu gara? Plas! Plas! Plas! Nolakoa izanen da mundu berria “hau dena pasatzen denean”? Balkoiko polizia ala elkartasun sarea gailenduko da? Kontrola edo malgutasuna?

Badira hau guztia bazetorrela bazekite- la dioten iragarleak, birusa norbaitek la- borategi batean asmo txarrez diseinatu

zuela sinetsita daudenak, zifrak sinesten ez dituztenak, puztuak edo hustuak dau- delakoan. Gauza seguru bakarra izurrite hau eragiten ari den sufrimendua da. Eta gure bizitzetako eman dien astinaldia. Eta geldialdia.

Plas! Plas! Konfinamendu gogorragoe- tan dauden bertze munduak ikusiko di- tugu? Harremanetan urrundu ala hurbil- du egingen gara? Herri hezitzaile- ra gerturatuko gara? Zaintza baloratuko du- gu? Kultura ikusi? Ekonomia bizigarri bat lortu? Kontsumoa lasaitu? Unea bizi? Plas! Plas! Plas! Txaloak izan daitezke, eta baita zaplaztekoak ere. •

Ze prezio du osasunak?

**Xabier Mikel
Errekondo**

Garai batean jainkoei nola, egun kataklismo oro naturari egozten konformatzen gara. Errealitatea baina beti da uste baino gordina- goa, eta nago Covid-19aren atzean guztia- haldun sentitzen den gizakia dagoela, ba- tzuk behintzat... Botere politikoa, ekonomikoa zein teknologikoa auzitan jartzen bada, edozer egiteko prest da eus- teko. Arrazoitua izangatik ere, salaketa oro “buloa” eta “konspirazioa” izango da, baita Guardia Zibilaren begietara, erridi- kulua egiten badu ere.

Thomas Cowan doktoreak dio azken 100 urteotako pandemia nagusiak lurra-

ren elektrifikazioaren salto kuantikoek eragin dituztela eta, Covid-19a, 5G tekno- logiaren zabalkunde izugarriak. Buloa omen, baina eta egia bada? 5G tekno- logiaren atzetik mundu mailako interesa dago, bereziki Txinaren eta AEBen artean, eta mundu-guda digitala piztua dute. Ka- sualitatea ote birusaren jatorri omen den Wuhan hiria 5G teknologiarekin %100 es- talia dagoen munduko lehena izatea?

Euskal Herrian badakigu zer den osasu- naren alde egitea, hots, kutsaduraren kontra. Ikasia dugu, beraz, kanpo elektro- magnetikoek kalte egiten diguten arren, ez enpresari aseezinek ez politikari ardu-

ragabeek ez dutela sekula onartuko 5G teknologia osasunarentzat kaltegarria de- nik; bada, *J'acuse*.

Bestalde, Harvard Unibertsitatearen ikerketa berriak ondorio larri bat gehitu du: Covid-19aren hilkortasun tasa han- diagoa da inguru kutsatuetan. Hala nola zabortegi eta erraustegi inguruetan.

Urkullu zein Olano eta Arriola zein Asensio jaunak, ez gaitzazue ez nahas ez engaina arrazoi orokor iheskorrekin, behingoagatik jarri erdigunean herrita- rrak eta zuzendu erabakiak. #Zabalgar- biArgitu! #DonostiakoErraustegiaEz!

Ze prezio du osasunak? •